

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

3582

IRAGARKIA, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Renian Comercial 21 S.L. enpresak Alonsotegin (Bilbo-Balmaseda errepidea, 9. km, Cadagua industrialdea, A pabiloia) hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko jarduerarako eta Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-baimen bakarra lortzeko aurkeztu duen proiektu teknikoa.

Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen arabera, ingurumen-baimen bakarra behar da titulartasun publiko edo pribatuko jarduerak eta instalazioak ustiatzeko, baldin eta I.B. eranskinean jasotako jardueraren bat egiten bada.

Ingurumen-baimen bakarraren bidez, egintza bakar batean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aldeztu aurretik emandako administrazio-prozedura bakar batean biltzen dira hondakinak sortzeko eta kudeatzeko baimenak eta kolektorerak, jabari publiko hidraulikora eta itsaso eta lehorren arteko jabari publikora nahiz atmosferara isurketak egiteko baimenak, eta kasuan kasuko isurtzeko muga-balioak finkatzen dira, aplikatzekoa den araudi sektorialean xedatutakoaren arabera.

Aipatutako arauak 36. artikuluan ezartzen duenez, behin eskabidea aurkeztuta eta dokumentazioa osorik dagoela egiaztatuta, instalazio- edo jarduera-proiektua jendaurrean jarriko da, hogeita hamar egun balioduneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Horretarako, aldeztu aurretik iragarkia jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan.

Horiek horrela, AAU01496 espedientea jendaurrean jarri behar da, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, egoki iritzitako alegazioak edo oharak aurkez daitezkeen.

Jendaurrean jartzeko izapidea bete behar duen instalazioaren dokumentazioa jendearen eskura egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 31.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.

ERANSKINA

Espediente-zenbakia	Instalazioa	Udalerria
AAU01496_SOL_2025_001	Renian Comercial, 21 S.L.	Alonsotegi